



GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA



NORMALTASUN BERRIA - KONTSULTA MEDIKUEN IREKIERARAKO GIDA

2020ko ekainaren 30an osatutako informazioa

Estatuko araudia: SND/388/2020 Agindua, maiatzaren 3koa, SND/399/2020 Agindua, maiatzaren 9koa, SNS/414/2020 Agindua, maiatzaren 16koa, SNS/427/2020 Agindua, maiatzaren 21koa, Orden SND/458/2020 Agindua maiatzaren 30ekoa, SND/507/2020 Agindua ekainaren 6koa. 21/2020 Lege Dekretua, ekainaren 9koa.

Araudi autonomikoa: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren maiatzaren 5eko Agindua (maiatzaren 10ean argitaratua), Lehendakaritzaren 8/2020 Dekretua, urriaren 10ekoa; 12/2020 Dekretua, maiatzaren 24koa; Lehendakaritzaren 13/2020 Dekretua, ekainaren 7koa, Osasun Sailaren Agindua, ekainaren 18koa.

Hauek dira berrietasun azpimarragarriak:

- a) **Ez dago aforoaren mugarik;** dena den, espazio komunetan % 60ko muga ezartzen da, eta hori itxarongelan egon daitezkeen pertsonen muga gisa interpreta daiteke, betiere segurtasun-distantzia errespetatuz.
- b) **1'50 metroko segurtasun distantzia;** lehen 2 metroko distantzia ezartzen zen.
- c) **Musukoen erabilera;** ezin denean segurtasun distantzia mantendu.

Lekualdatzeko aukera, inolako mugarik gabe; aurretik, Euskadiko lurraldeen artean bakarrik egin zitezkeen lekualdaketa; fase berri honetan, jada baimenduta dago lekualdaketa, mugarik gabe eta justifikaziorik behar izan gabe.



1 IREKITZEKO BALDINTZAK

1. **Aurretiko hitzordurik ez;** jada ez da beharrezkoa aurretiko hitzordurik.
2. **Itxarongela;** pazienteak egon ahal izango dira itxarongelan, edukieraren% 60eko mugarekin, espazio komuntzat hartzen delako.
3. **Behar bezala bereiztea:** pazienteak administrazio-eremuan artatzeko, behar bezala bereiztea bermatu beharko da, eta, ezinezkoa bada, erakusmahaiak edo manparak instalatuz.
4. **65 urtetik gorakoentzako lehentasunezko ordutegia:** lehentasunezko arreta-ordutegia ezarriko da.
5. **Joan-etorriak:** ez dago joan-etorrietarako inongo mugarik.

2 GARBITASUNA

Honakoak dira jarraitu beharreko higie-neurriak:

1. **Maskara nahitaez erabili behar da;** jendeari irekitako edozein gunetan, baldin eta 1,5 metroko segurtasun-distantzia mantendu ezin bada.
2. Lekuaren ezaugarrietara eta intentsitatera egokitutako **garbiketa eta desinfekzioa**.
3. Kotsultaren **aireztapen** egokia.
4. **Eskuak garbitzea,** langileen eskura ura eta xaboia jarritz, edo gela hidroalkoholikoak edo desinfektatzaileak, jarduera baztandarra dutenak, baimenduta eta erregistratuta.



3 PREBENTZIOA

Langileentzako prebentzio-neurriak:

1. Langileak **lanera itzultzeko debekua**, baldin eta:
 - a) Etxeko isolamenduan egotea diagnostikoagatik edo COVID-19rekin bateragarria den sintomatologiagatik.
 - b) Etxeko berrogeialdian egotea, sintomarik izan ez arren, COVID-19 sintomak dituen edo diagnostikatuta dagoen norbaitekin kontaktua izateagatik.
2. **Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea**; aginduaren berezko neurriak ahaztu gabe, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritakoa bete behar da, bai orokorrak, bai COVID-19ren kutsatzea prebenitzeko espezifikoak.
3. Lantokien ezaugarriei eta erabilera-intentsitateari egokitutako aireztapen-, garbiketa- eta desinfekzio-neurriak hartzea, kasu bakoitzean ezartzen diren protokoloen arabera.
4. Langileen eskura ura eta xaboia jartzea, edo gel hidroalkoholikoak edo birusen kontrako desinfektatzaileak, eskuak garbitzeko Osasun Ministerioak baimendu eta erregistratutakoak.
5. Lan-baldintzak, lanpostuak eta txanden antolaketa egokitzea, bai eta leku komunak erabilera ere, langileen artean gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea egon dadin bermatzeko. Hori ezinezkoa denean, arrisku-mailara egokitutako babes-ekipamenduak eman beharko zaizkie langileei.
6. Neurriak hartzea, langile, bezero edo erabiltzaile asko pilatu ez daitezen, aurreikuspenen arabera jende gehien bilduko den ordutegi-tarteetan.
7. Lanpostuetara pixkanaka bertaratzeko eta telelanaren erabilera sustatzeko neurriak hartzea, lan-jardueraren izaeragatik posible denean.
8. Osasun-administrazioak langileen eta pazienteen ongizatea bermatzeko antolaketa-, prebentzio- eta higiene-neurriak hartzen direla bermatuko du.



Era berean, beharrezko babes-materialen eskuragarritasuna bermatuko du dagozkion kokapenetan, erabilitako eremuen garbiketa eta desinfekzioa eta hondakinen ezabaketa, bai eta ekipoen eta instalazioen mantentze-lan egokia ere.

4 PAZIENTEAK: BABES- ETA HIGIENE-NEURRIAK

1. **Behar-beharrezkoa den denbora** pazienteak lokalean egongo dira behar-beharrezkoa den denboran.
2. **1'50 metroko distantzia**; guneren batean bi paziente edo gehiago badaude, segurtasun-distantzia gordetzeko seinaleak egon beharko dira.
3. **Sarreran birusen aurkako gel ontziak.**
4. **Komunak ez erabiltzea**; pazienteek ez dituzte komunak erabiliko, behar-beharrezkoa ez bada behintzat; erabiltzen badituzte, berehala garbituko dituzte sanitarioak, txorrotak eta ateko heldulekuak.